

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

Ekonomia %3aren gaintetik hazten da

Enplegu finkoa deuseztu da, eta aldi baterakoa sortu

Gizarte Segurantzara kotizatzen dutenen %11,9, lanaldi partzialean

la 50.000 langile Gizarte Segurantzarik gabe

35.402 lan istripu urtarriletik ekainera, 4.327 gehiago

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATUA	2005	12 HILE LEHEN.	2004 BUK.
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (16-65 URTE BITARTEKO BIZTANLERIA)					
JARDUERA TASA	%	05 III	70,3	70,3	70,5
" 15-EBn	%	2004	70,4	70	70,4
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	05 III	1.216.200	1.190.800	1.199.500
SOLDATAKO BIZTANLERIA	KOPURUA	05 III	998.600	969.100	969.100
ALDI BATERAKOTASUN TASA	%	05 III	30,4	30,9	30,4
" 15-EBn	%	04 II	13,4	13	13,4
BIZTANLERI LANGABETUA	KOPURUA	05 III	64.500	90.000	85.100
LANGABEZI TASA	%	05 III	5	7	6,6
" 15-EBn	%	05 III	7,8	8	8
GAZTEEN LANGABEZI TASA	%	05 III	12,7	19,9	17,3
" 15-EBn	%	05 III	16,3	16,6	16,5
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA	%	05 III	6,3	8,9	7,7
" 15-EBn	%	05 III	8,7	9,3	9,1
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	05 URT-URRI	857.795	84.224	1.003.619
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	05 URT-URRI	65.067	6.998	74.836
ENPLEGU ERREGULAZIOA					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	05 URT-UZT	240	333	545
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	05 URT-UZT	5.627	7.549	11.971
LAN ISTRIPUAK					
BAJA HARTZEN DUTEN LANGILEAK	KOPURUA	05 URT-EKA	35.402	31.075	62.115
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	05 URT-EKA	402	364	731
ESKAINNTZA ETA ESKARIA					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	05 URT-IRA	2,7	3,8	1,9
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	04 URT-EKA	2,3	5,2	5,5
BPGa EAEn	% ALD.	05 III	3,7	3,4	3,1
BPGa NAFARROAn	% ALD.	05 III	3,3	3,4	3,2
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	05 III	3,5	3,1	3,2
BPGa 15-EBn	% ALD.	05 III	1,6	2,1	1,8
PREZIOAK					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	05 URRIA	3,5	3,6	3,2
" 15-EBn	%	05 URRIA	2,4	2,1	2,2
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da. Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, INE. 2005/11/24an eguneraturiko informazioa					
			101. zbk. Egoeraren Azterketa 2005eko azaroa		



Aurkibidea

SARRERA	3
GIZARTE ETA EKONOMIA EGOERAREN AZTERKETA	4
1. Europakoaren besteko jarduera-tasa	4
2. Zerbitzuak: enpleguaren eragilea.....	4
3. Enplegu egonkorra suntsitu eta aldi baterako enplegua sortu da.....	4
4. Lan-kontratazioan egiten den iruzurra	5
5. Enplegu-erregulazioek jarraitu egiten dute	6
6. Lan-istripuak ugaritu egiten dira...	6
7. Ekonomiak haziz jarraitzen du	6
8. Prezioak 15-EBn baino gehiago igo dira.....	7
PUNTAKO GAIAK	8
1. Gizarte Segurantzaren kotizatzen dutenen %11,9a lanaldi partzialean	8
2. Hainbat iturri, emaitza ezberdinak	9

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jarduaren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

EGOERAREN A Z T E R K E T A

Sarrera

101. Egoeraren Azterketa honetan lan merkatuaren egoera aztertzen dugu 2005eko hirugarren hiruhilekorako, eta baita egoera ekonomikoari buruzko hainbat aldagai ere. Puntako gaitan, Gizarte Segurantzaren izena emanda dauden pertsonen egoera aztertzen dugu alde batetik, eta iturri ezberdinez informazio ezberdina ematen duten enpleguari buruz ere bestetik.

* Txosten hau 2005eko azaroaren 24an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

Gizarte eta ekonomia egoeraren azterketa

1. Europakoaren besteko jarduera tasa

Biztanleria aktiboaren portzentajea (hau da, lanean ari diren edo lanpostu bat modu aktiboan bilatzen duten biztanleena) %70,3koa izan da 2005eko hirugarren hiruhilekoan Hego Euskal Herrian (HEH); horrek 0,7 puntuko igotza adierazten du aurreko hiruhilekoaren aldean. Sarritan esan izan denaren aurka, ehuneko hori 15 herrialdek osatutako Europar Batasunekoaren (15-EBkoaren) antzekoa da, 2004an %70,4koa izan zena.

HEHn, gizonezkoen jarduera-tasa (%80,7) emakumezkoena (%59,6) baino 21,1 puntu altuagoa da; alderdi horretan dago, hain zuzen ere, 15-EBrekiko alderik handiena, 15-EBko gizonezkoen jarduera-tasa (%78,5) emakumezkoena (%62,3) baino 16,2 puntu altuagoa da eta. Beraz, HEHko jarduera-tasan sexuaren arabera dagoen jautzia 15-EBkoa baino 4,9 puntu handiagoa da.

2. Zerbitzuak: enpleguaren eragilea

Lanean dabilen biztanleria 1.216.200 lagunekoa izan da; hortaz, hiruhilekoan, 20.700 lanpostu sortu dira. Lanean dabiltzan gizonezkoen kopurua 10.400etan hazi da, eta 713.900 pertsonakoa da orain kolektibo hori, guztizkoaren %58,7, alegia. Lanean dabiltzan emakumeen kopurua, berriz, 10.300 lagunetan hazi da, 502.400, hau da, lanean dabilen biztanleria osoaren %41,3, izan arte.

LANEAN DABILEN BIZTANLERIA SEKTOREKA (GUZTIZKOA ETA GUZTIZKOAREN %). HEH, 2005eko III. HIRUHIL. ETA HIRUHILEKOKO BILAKAERA

	KOPURUA	GUZTIZKOAREN %	HIRUHILEK. BILAKAERA
LEHEN SEKTOREA	22.000	1,8	-1.400
ERAIKUNTZA	111.500	9,2	-100
INDUSTRIA	316.600	26,0	-1.500
ZERBITZUAK	766.100	63,0	23.700
GUZTIRA	1.216.200		20.700

Iturriak: Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

Sektorez sektore aztertuta, zerbitzuena izan da lana jende gehieni eman diona (766.100 laguni), guztizkoaren %63ra heldu delarik. Horrez gain, kopuruaren eta pisuaren aldetik, hiruhilekoan handitu den bakarra izan da (23.700 pertsona gehiago daude sektorean lanean). Bertan lanean dabiltzanen kopuru handiak eta bere bilakera enpleguaren eragile bihurtu dute zerbitzuen sektorea.


Industria pertsona gehien enplegatu dituen bigarren sektorea da, 1.600 lagunetan urritu arren: 316.600 pertsonari ematen die lana sektore horrek, lanean dabilen biztanleria osoaren %26ri, alegia. Eraikuntza sektorean 111.500 lagun ibili dira lanean, aurreko hiruhilekoan baino 100 gutxiago, hain zuzen, enplegu osoaren %9,2 hartu duelarik. Lehen sektoreko biztanleria gutxitu egin da, berriro ere, hiruhileko horretan; zehazki, 1.400 lagunetan urritu da. Sektore horretan jardun duen biztanleria 22.000 lagunekoa izan da, hau da, lanean dabilen biztanleria osoaren %1,8.

Soldatapeko biztanleria 998.600 pertsonakoa izan da, ekitaldiko bigarren hiruhilekoan baino 26.300 gehiagokoa, alegia. Horrek esan nahi du lanean dabiltzan baina soldatapekoak ez diren kopurua (enplegu-emaileak, langile autonomoak, familia-laguntzan dihardutenak, kooperatibistak...) 5.600 lagunetan gutxitu dela hiruhilekoan. Lanpostua duten 100 pertsonatik 82,1 izan dira soldatapekoak (79,3, gizonen kasuan, eta 86,1, emakumeenean).

3. Enplegu egonkorra suntsitu eta aldi baterako enplegua sortu da

Hona hemen enpleguak hiruhilekoan zehar izan duen bilakaeraren alderdirik aipagarriena: gutzira, **aldi baterako kontratuarekin edo kontraturik gabe** lan egiten dutenak 303.200 dira, hots, aurreko hiruhilekoan baino 32.200 gehiago. Hiruhilekoan, aldi baterako lana duten pertsonak lanpostuak baino gehiago ugaritu izanak erakusten duenez, sortu den enplegua aldi baterakoa izateaz gain, enplegu egonkorra suntsitu egin da.

Ildo horretan, *behin-behinekotasun tasa* %30,4koa da, aurreko hiruhilekoko baino 2,5



puntu altuagoa, alegia. 15-EBko behin-behinekotasun tasa %13,4koa izan zen 2004ko bigarren hiruhilekoan (eskura daukagun azken informazioa da); horren arabera, HEHko behin-behinekotasuna Europakoaren bikoitza baino altuagoa da.

Emakumeek areago jasaten dute behin-behinekotasuna, soldatapeko 100 emakumetik 35,7k nozitzen baitute egoera hori (5,3 puntu biztanleria osoaren behin-behinekotasunaren gainetik). 15-EBrekiko diferentzia ere nabariagoa da emakumeen kasuan: HEHko emakumeen behin-behinekotasun tasa 15-EBkoa (%14,4) baino 2,5 bider altuagoa da. Gizonezkoen behin-behinekotasun tasa %26,3koa izan da HEHn, 15-EBkoa (%12,6) baino 13,7 puntu altuagoa, hain zuzen ere.

BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA OROKORRA, EMAKUMEENA ETA GIZONENA. HEH (2005eko III. HIRUHIL.) ETA 15-EB (2004ko II. HIRUHIL.)

	HEH	15-EB
OROKORRA	30,4	13,4
EMAKUMEENA	35,7	14,4
GIZONENA	26,3	12,6

Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat

Behin-behinekotasuna nabarmenki pairatzen duen beste kolektibo bat *25 urtetik beherako gazteena* da; kolektibo horrek %64,4ko tasa jasan du, 15-EBkoa (%39) baino 25,4 puntu altuagoa, alegia.

4. Lan-kontratazioan egiten den iruzurra

Urtarriletik urrira bitarte, **857.795 lan-kontratu** sinatu dira HEHn, hau da, 2004ko epealdi berean (833.867) baino 23.928 gehiago.

Kontratu horietatik **792.728** aldi baterakoak izan dira. Horrek adierazten duenez, **sinatutako 100 kontratutik 92,4 aldi baterakoak izan dira** (portzentajea mantendu egin da aurreko ekitaldiko epealdi berarekin konparatuta). Azken urteetan errepikatu izan den datu horrek agerian uzten du lan-kontratazioan iruzur handia dagoela, baina, hala ere, ez dela horren kontrako neurri eraginkorrik hartzen.

Aldi baterako kontratu motak aztertzean ikus dezakegunez, kontratuen %38,9 behin-behine-

koak izan dira; %34,3, obra-kontratuak; %16,5, bitarteko lan-kontratuak; %0,9, praktikaldiko kontratuak; erretiro partziala eta txanda-kontratu guztizkoaren %0,5 izan dira bakoitza; bestelako kontratuak %0,4 izan dira; prestakuntzarako kontratuak, %0,3, eta elbarrien aldi baterako kontratuak, %0,1.

Emakumeen kolektiboari dagokionez, kontratu motarik ohikoena behin-behinekota da (emakumeek sinatu dituzten kontratu guztien %39,4 dira mota horretakoak); horren ostean, obra-kontratu (%26,6) eta bitarteko kontratu (%25,3) datoz. *Gizonen kasuan*, ordea, obra-kontratu da ohikoena (gizonek sinatutako kontratu guztien %42,1 dira horrelakoak), eta, ondoren, behin-behineko kontratu dator, %38,4arekin.

Kontratu mugagabeak 65.067 izan dira, hots, **kontratu guztien %7,6**. Zehazki, sinatutako kontratuen %3,7 izan dira mugagabe bihurtutakoak; %2,2, ohiko kontratu mugagabeak izan dira, eta %1,7, enplegua sustatzeko kontratu mugagabeak.

SINATUTAKO KONTRATUAK. HEGO EUSKAL HERRIA, 2005eko URTARRILA-URRIA

	KOPURUA	GUZTIZ. %	GIZON % GUZTIZK.	EMAK. % GUZTIZ.
BEHIN-BEHINEKOAK	333.674	38,9	38,4	39,4
OBRA-KONTRATUAK	294.508	34,3	42,1	26,6
BITARTEKOAK	141.258	16,5	7,7	25,3
PRAKTIKALDIKOAK	7.498	0,9	1,0	0,7
ERRETIRO PARTZIALAK	4.135	0,5	0,8	0,1
TXANDAKOAK	4.131	0,5	0,7	0,2
BESTELAKOAK	3.706	0,4	0,4	0,4
PRESTAKUNTZARAKOAK	2.683	0,3	0,4	0,2
ELBARRI. ALDI BATER.	998	0,1	0,2	0,1
ORDEZKOTZA-KONTR.	91	0,0	0,0	0,0
LANERATZEKO ALDI BATER.	46	0,0	0,0	0,0
ALDI BATER., GUZTIRA	792.728	92,4	91,7	93,1
MUGAGABE BIHURTUAK	31.438	3,7	4,3	3,0
OHIKO MUGAGABEAK	19.010	2,2	2,9	1,5
ENPLEGUA SUST. MUG.	14.240	1,7	1,0	2,3
ELBARRIENAK	379	0,0	0,1	0,0
MUGAGABEAK, GUZT. GUZTIRA	65.067	7,6	8,3	6,9
GUZTIRA	857.795	100	100	100

Iturria: INEM

Biztanle langabeak 64.500 izan dira, aurreko hiruhilekoan baino 8.900 gutxiago, hain zuzen ere. Pertsona horietatik 30.900 (kopuru osoaren %47,9) gizonak dira, eta 33.600 (guztizkoaren %51,1), emakumeak.

Hortaz, **langabezia-tasa** %5ekoa izan da, hots, aurreko hiruhilekoak baino 0,7 puntu baxuagoa, eta 15-EBkoa (%7,8) baino 2,8 puntu baxuagoa.

Gizonen langabezia-tasa (%4,1) 15-EBkoa (%7) baino 2,9 puntu baxuagoa izan da, eta emakumeena (%6,3), 15-EBkoa (%8,7) baino 2,4 puntu baxuagoa. Bestalde, 25 urtetik beherako kolektiboaren langabezia-tasa (%12,7) 15-EBkoa (%16,3) baino 3,6 puntu baxuagoa izan da. Beraz, HEHko langabezia-tasa 15-EBkoa baino baxuagoa da aztertu ditugun aldagai guztietan.

5. Enplegu-erregulazioek jarraitu egiten dute

Urtarriletik uztaile bitarte, enplegu-erregulaziorako 240 fitxa baimendu dira, hots, 2004ko epealdi berean (333 fitxa baimendu ziren) baino 93 gutxiago. Fitxa horien ondorioak 5.627 pertsonak nozitu dituzte, 2004ko lehenengo 7 hilabeteetan (7.549 langilerengan izan zuten eragina) baino 1.922 pertsona gutxiagok, alegia.

6. Lan-istripuak ugaritu egin dira

Aurten, oso gutxi izan dira lan-istripuren baten berri jakin ez dugun egunak. Izan ere, lan-istripuak oso maila altuetara iristen ari dira 2005ean.

Urtarriletik ekainera, baja eragin duten **35.402 lan-istripu** jazo dira (2004ko lehenengo sei hilekoan baino 4.327 gehiago).

Istripu horietatik hildakoren bat eragin dutenak 61 izan dira, 2004ko epealdi berean (horrelako 42 istripu gertatu ziren) baino 19 gehiago. Istripu **larriak 341** izan dira, hots, aurreko urtealdiko lehenengo sei hilabeteetakoak (322 istripu larri) baino 19 gehiago.

Baja eragin duten istripuen kopurua murriztu egin da 2004koaren aldean, baina istripu larriena eta hildakoren bat eragin dutenena, ordea, areagotu egin da. Horrek pentsarazten digu

istripu arinen kopurua, agian, "ezkutatu" egiten dela.


Azpiktratazioa eta lan-erritmo azkarregiak izaten dira lan-istripuen eragile nagusiak, baina, hori jakin arren, ez da egoera zuzentzeko neurririk hartzen. Laneskua ekoizpen-faktore hustzat hartzen segitzen den bitartean, eta instituzioek lan-istripuen kontrako neurririk ez isunik ezartzen ez badute, langileen bizia arriskuan egongo da.

7. Ekonomiak haziz jarraitzen du


Ekonomiaren bilakaeraren berri ematen duen informaziorik argigarrienak, Barne Produktu Gordinak (**BPG**), Hego Euskal Herriko ekonomiaren **egoera ona erakusten du oraindik ere**; Europako batez bestekoa baino hobea, hain zuzen ere. Zehatz esateko, EAeko BPGa %3,3a hazi zen **2004an**, eta Nafarroakoa %3,5, Espainiako Estatuko hazkundera (%3,1) eta 15-EBkoa (%2,3) txikiagoak izan zirelarik.

Urtealdi honetako bilakaeraren azterketak erakusten duenez, EAeko BPGak %3ko, %3,5eko eta %3,7ko urte arteko hazkundera izan du, hurrenez hurren, 2005eko lehenengo hiru hiruhilekoetan; Nafarroako BPGa, berriz, %3a, %3,1a eta %3,3a hazi da, eta Espainiako estatukoak %3,3, %3,4 eta %3,5. 15-EBko BPGak %1,4ko, %1,2ko eta %1,6ko hazkundera izan ditu, hurrenez hurren, lehenengo hiruhilekoetan; HEHkoak baino hazkunde nabarmenki urriagoak, beraz.

BPGaren URTE ARTEKO HAZKUNDEAK EAE, NAFARROA, ESPAINIAKO ESTATUA, 15-EB. 2004, 2005.



Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, INE, Eurostat



BPGaren hazkundeak oso ezberdinak dira EBko estatu batetik bestera. Izan ere, historikoki hazkunde txikiagoa bide zuten estatu batzuetako BPGa nabarmenki gehitzen ari da. Esaterako, Greziako BPGak %3,7ko hazkundea izan du 2005eko hirugarren hiruhilekoan, eta Espainiako Estatukoak, %3,5koa. EBren eragileztartzen ziren beste zenbait estatu, ordea, Europako batez bestekoaren azpitik hazten ari dira; Alemaniako BPGa, adibidez, %1,4 hazi da.

Hurrengo tauletan, BPGak eskaintzarekiko izan duen bilakaera ikus daiteke. Tauletan 2004ko informazioa eta 2005eko lehenengo hiru hiruhilekoetako azaltzen badira ere, azterketa egitean azken datua bakarrik aipatzen dugu, hau da, 2005eko hirugarren hiruhilekoko.

EAEn, sektoreei buruz ikus daitekeenez, erakintza sektoreak izan du gehikuntzarik handiena (%5,7ko hazkundea izan du 2005eko hirugarren hiruhilekoan). Hazkunde handieneko bigarren sektorea zerbitzuena izan da (hirugarren hiruhilekoan, %3,3 hazi da), eta hurrengoak, industria (%2,3) eta lehen sektorea (%0,3).

BPGa SEKTOREZ SEKTORE. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASAK. EAE, 2004 ETA 2005eko I, II ETA III HIRUHIL.

	2004	2005		
		I	II	III
NEKAZ. ETA ARRANTZA	16,8	7,5	7,4	0,3
INDUSTRIA	2,5	1,4	2,3	2,3
ERAIKUNTZA	5,4	5,3	5,8	5,7
ZERBITZUAK	3,1	3	3,2	3,3
BPG	3,3	3	3,5	3,7

Iturria: Eustat

Nafarroan, eraikuntza izan da gehien hazi den sektorea (Balio Erantsi Gordina, BEGa, %4,9 hazi da sektore horretan 2005eko hirugarren hiruhilekoan), eta, horren ostean, zerbitzuak (%4,1eko hazkunde), industria (%1,7) eta lehen sektorea (%0,4) datoz.

BEGa SEKTOREZ SEKTORE. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASAK. NAFARROA, 2004 ETA 2005eko I, II ETA III HIRUHIL.

	2004	2005		
		I	II	III
LEHEN SEKTOREKO BEG	-0,3	-0,6	-0,4	0,4
INDUSTRIAKO BEG	2,6	2,1	1,9	1,7
ERAIKUNTZAKO BEG	4,1	4,6	4,7	4,9
ZERBITZUETAKO BEG	4,2	3,5	3,6	4,1
BPG GUZTIRA	3,5	3,0	3,1	3,3

8. Prezioak 15-EBn baino gehiago igo dira


Espainiako estatuan, **prezioen igoera** urte arteko %3,5koa izan da urrian, **15-EBn** batez beste izan den %2,4aren **oso gainetik**. Diferentzia hori aspaldidanik errepikatzen ari da, 2004an, adibidez, Espainiako Estatuan KPlaren %3,2ko gehikuntzarekin itxi baitzen urtealdia, 15-EBko %2,2aren aldean.

Urtariletik urrira bitarte metatutako KPIa, bestalde, %3,4koa izan da.

Prezioen igoera ezin zaie bakarrik nazioarteko egoerarekin loturiko alderdiei **egotzi**, beste arrazoi batzuk ere badaudelako, hala nola **enpresaburuen mozkinen gehikuntza handia**, adibidez, Espainiako Bankuaren eta Balore Merkatuko Batzordearen datuek agerian uzten dutenez.

Prezioen igoeraren aurka borrokatzeko erreza ezin da soldaten murrizketa izan. Aitzitik, **soldatek orain arte baino gehiago hazi behar dute, lan-errentek aberastasunean duten partaidetza mantendu eta berreskuratu ahal izateko.**

KPlaren URTE ARTEKO GEHIKUNTZAK. ESPAINIAKO E., 15-EB



Iturriak: INE, Eurostat

1

Gizarte Segurantzaren kotizatzen dutenen %11,9a lanaldi partzialean

2005eko abuztuan, Hego Euskal Herrian, 1.168.214 pertsona zeuden Gizarte Segurantzaren (GS) afiliatuta; egoeraren azterketa honetan aipaturiko datuaren arabera lanean dabiltzanak baino **47.986** pertsona gutxiago dira horiek, hau da, %4,1 gutxiago. Iturri bakoitzaren fidagarritasuna alde batera utzita, esan genezake ia 50.000 lagunekoa alde horren zati bat, gutxienez, **lanean dabilen baina Gizarte Segurantzaren alta emanda ez dagoen jendea** dela.

GSan afiliaturiko pertsonen portzentajea sexua-
ren arabera ere azter dezakegu. Horrela, afilia-
tuetatik 706.782 (%60,5) gizonak direla ikusten
dugu, emakumeak 461.395 (%39,5) direlarik.
Informazio hori EPAren eta BJAREN arabera
lanean dabilen biztanleriarekin alderatzen
badugu, hauxe ikus dezakegu:

- Lanean ari diren gizonak Gizarte Segurantzaren inskribaturik daudenak baino 7.118 gehiago dira, hau da, %1 gehiago.
- Lanean diharduten emakumeak GSan alta emanda daudenak baino 41.005 gehiago dira, %8,9 gehiago, alegia.

Beraz, esan daiteke GSan afiliaturik egon gabe lanean ari diren gehienak emakumeak direla.

LANEAN DABILEN BIZTANLERIA (2005eko II. HIRUHIL.) ETA GSAN AFILIATUAK (2005eko ABUZTUA). HEGO EUSKAL HERRIA

	LANEAN DABILTZ.		GSAN AFILIAT.		DIFERENTZIA	
	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%
GIZONAK	713.900	58,7%	706.782	60,5%	7.118	1,0%
EMAKUM.	502.400	41,3%	461.395	39,5%	41.005	8,9%
GUZTIRA	1.216.300		1.168.177		48.123	

Iturriak: BJA, EPA, Lan eta Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales

Gizarte Segurantzaren inskribaturik dauden pertsonen **lan-erregimenak aztertzean** ikus dezakegunez, afiliaturiko pertsonetatik 902.513 (kopuru osoaren %77,3) erregimen orokorrekoak dira; 220.827 (%18,9), autonomoen erregimenekoak; 20.022 (%1,7) etxeko langileen erregimenekoak; 20.001 (%1,7) nekazaritzako erregimenekoak, eta 4.851 (%0,4) itsasoko erregimenekoak.

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales-en informazioak GSan lanaldi partzialean alta emanda dauden biztanleen portzentajea ere aztertzeke aukera ematen du. Aldi baterako kontratuarekin edo txanda-kontratuarekin inskribaturikoak 138.843 dira, eta, praktikan, beroriek osatzen dute lanaldi partzialean kotizatzen dutenen taldea. Horrek esan nahi du **GSko kotizatzailetzat agertzen diren %11,9ak lanaldi partzialean kotizatzen duela**; hala ere, ez da ondorioztatatu behar datu hori bat datorrela benetan lanaldi partzialean diharduten langileen kopuruarekin.

LANALDI PARTZIALEKO KOTIZAZIOA. HEGO EUSKAL HERRIA, 2005eko ABUZTUA

	LANALDI PARTZIALEKO KONTRATUA		TXANDA KONTRATUA		LANALDI PARTZIALEAN. GUZTIRA	
	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%
	NAFARROA	31.133	11,8	1.931	0,7	33.064
EAE	98.479	10,9	7.300	0,8	105.779	11,7
HEH	129.612	11,1	9.231	0,8	138.843	11,9

Iturria: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales



2

Hainbat iturri, emaitza ezberdinak

Hainbat iturrik ematen dute enpleguari buruzko informazioa erregulartasunez aztertzeo aukera; horietatik, honako hiru hauek dira aipagarrienak:

- BJA (Biztanleria Jardueraren Arabera azertzen duen Inkesta), Eustatek (Euskal Estatistika Erakundeak) EAeri buruz hiru hilerik behin argitaratzen duena.
- EPA (Encuesta de Población Activa), Instituto Nacional de Estadística (INE) hiru hilerik behin argitaratzen duena; horren ustiapen xehatua IENek (Instituto de Estadística de Navarra) argitaratzen du Nafarroako lurraldeari buruz.
- INEMek, hileroko, datu estatistikoei buruz argitaratzen duen aurrerapena, erakunde horren zerrendetan oinarritua.

ELAn, beti iturri berbera erabiltzeko erabakia hartu genuen, aldagai berberak hainbat unetan eta hainbat iturriren arabera aztertzeak hutsegiteak sor ditzakeelako. Iturri bakoitzaren fidagarritasuna aratu ondoren, *EAEren kasuan, BJA eta, Nafarroarako, EPA* erabiltzea ebatzi genuen.

Azken urteetan, hainbat **metodologia-aldaketa** egin dira iturrietan. Horrek eragotzi egiten du epealdi luze baterako azterketa homogenea egitea. Gainera, erakunde publikoek metodologia-aldaketak egin baino lehenagoko urtealdiei buruzko informazio homogenea eman dutenean, informazio hori hasieran emandakoren oso ezberdina izan da, **informazioaren egiazkotasuna zalantzan jartzera garamatzana**.

Aldagai berari buruzko **informazioa oso ezberdina** da **iturri bakoitzaren** arabera ere. Erkatu ditzagun iturriek biztanle langabeei buruz ematen duten informazioak.

BJAren arabera, 2005eko hirugarren hiruhilekorian, **EAE**n 49.400 pertsona egon dira langabezian, EPAren arabera (76.600 langabe) baino 27.200 gutxiago, eta **INEM**ek dioena (81.852

langabe, 2005eko urrian) baino 32.452 gutxiago. Hortaz, muturrei erreparatuta, INEMen esanetan dagoen langabeen kopurua BJAk dioena baino %65,7 *handiagoa* da.

Nafarroaren kasuan, bi iturri besterik ez daukagu, baina, horien artean ere, alde esanguratsuak daude: EPAren arabera, urteko hirugarren hiruhilekorian 15.100 langabe egon dira, **INEM**en datuetan urriari buruz agertzen direnak (21.416) baino *6.316 gutxiago*, hain zuzen. Beraz, Nafarroan INEMen esanetan dauden langabeak EPAren arabera daudenak baino %41,8 gehiago dira.

Hasieratik argi izan dugu BJAko eta EPAko datuak INEMenak baino fidagarriagoak direla, azken horrek gutxietsi egiten dituelako benetako langabezia-zifrak. Oraingoan, ordea, BJAk eta EPAk INEMek baino langabe gutxiago zenbatesten dituztelako paradoxa jazo da, zentzugabea badirudi ere. **INEMek langabeziari buruz argitaratutako datuen arabera, HEHko langabezia-tasa %8,1ekoa litzateke, aipatutako %5koa barik.**

BIZTANLERIA LANGABEA ITURRIEN ARABERA. EAE ETA NAFARROA.

	BJA(05-III)	EPA (05-III)	INEM (05-URR.)
EAE	49.400	76.600	81.852
NAFARROA		15.100	21.416
HEH		91.700	103.268

Iturriak: BJA, EPA, INEM

OHARRAK:



A series of horizontal dotted lines for writing, with decorative pink geometric shapes on the left side.